



Trikizio

taldea Zegaman (Gipuzkoa) osatu zen 1999an. Trikizio taldeak hainbat musikariren sartu-irtenak izan baditu ere, taldearen bizkarrezurra eta gidaria den Xabi Arakama da hasierako kideetatik geratzen den bakarra. Musikariak aldatu dira, baina Trikizio taldearen sorrerako ideiek bertan dira: duintasunez kanturik entzutetsuenak jo, beste batzuk sortu eta alaitasuna barreiatu.

Trikizio taldea Euskal Herriko plaza-talde bat da baina egungo partaide guztiek badute gauza bat komunean: denek Donostiako Musikene Goi mailako Musika Eskolan lizentziatura lortu dute. Trikizio taldeak, besteak beste, honako lan hauek egin ditu: "Buru-belarri" abestia egin zuen 2000ko Nafarroa Oinezentzat (Zizur); Xabi Arakamak eta Kepa Junkerak 2003ko Araba Euskaraz ekitaldiko "Orobil borobil" singlea sortu zuten, eta AEKantuz disko-bilduman Xabier Letek abestu zuen Julen Lekuonaren "Itsasoan urak haundi" kantuen bertsioa egin zuten.

Trikizio taldearen lehen diskoak "EusCat" izenburua du. "EusCat" diskoarekin bi kultura sendetu nahi dira, Euskal Herria eta Katalunia, eta, horretarako, bi herrialde hauetako kantu, artista eta talderik ospetsuenetariokak bildu ditu. Euskal Herriaren eta Kataluniaren artean beti egon da harreman kultural estua. Kataluniako talde asko izan ditugu bisitari Euskal Herrian eta Euskal Herriko musika talde andana ibili da Katalunian barna jotzen. Horren adibide da Trikizio taldea bera, azkeneko hiru urteetan asko ari baita Mediterraneoeko herrialdean jotzen. Hori guztia ikusirik, bi herrien arteko lotura musikala islatuko duen proiektu bat argitaratzea pentsatu da, eta emaitza "EusCat" diskoa da. Lan berezi bezain ausarta. Bi hizkuntzak partekatzen dira disko berean, euskal kantuak katalanez abestu dira eta Kataluniakoak euskaraz, era horretan talde eta musikari horiei omenaldia eginez. Beraiek dira protagonistak "EusCat" diskoan, eta Trikizio dute interprete eta ordezkari. Diskoak dituen laguntzaileen zerrenda luzea bezain garrantzitsua da.

Trikizio taldeak abesti hauek bertsionatu eta moldatu ditu "EusCat" diskoan:

- 1.- Mª MERCE (POMADA)
- 2.- JO TA KE (SU TA GAR)
- 3.- PERQUE VULL (OVIDI MONTLLOR)
- 4.- ESAIOK (eusk) (HERTZAINAK)
- 5.- LA GALLINETA (eusk) (LLUIS LLACH)
- 6.- MARTXA BATEN LEHEN NOTAK (MIKEL LABOA)
- 7.- SARRI-SARRI (KORTATU)
- 8.- FESTA SI, LLUITA TAMBÉ (INADAPTATS)
- 9.- CAÇA DE BRUIXES (OBRINT PAS)
- 10.- EL CANT DELS MAULETS (ALL TALL)
- 11.- NERE AMETSA (KAXIANO)
- 12.- ESAIOK (kat)
- 13.- LA GALLINETA (kat)

Zuzeneko musikariak

Trikia eta ahots nagusia: Xabi Arakama. Gitarra: Iban Gurrutxaga. Bateria: Juanma Urriza "Boli". Baxua: Kike Arza. Alboka, txalaparta eta koroak: Mikel Albisu. Teklatua, txalaparta eta koroak: Unai Frantzesena. Argi teknikaria: Frank Lopepe. Soinu teknikaria: Paxkal Etxepare.

Grabaketako musikariak

Bateria: Frantxoa Erreçarret. Baxua: Matthieu Haramboure. Gitarra: Paxkal Etxepare / Iban Gurrutxaga. Teklatuak: Unai Frantzesena. Txalaparta: Mikel Albisu, Unai Frantzesena, Xabi Arakama. Ahots nagusia, trikia, panderoa eta txaloak: Xabi Arakama. Koroak: Xabi Arakama, Paxkal Etxepare.

Musikari Gonbidatuak

Miquel Girones "Obrint Pas": dultzaina (Jo ta Ke), ahotsa (Caça de bruixes). Kepa Junkera: trikitixa (La Gallineta). Joseba Tapia: trikitixa (Perque Vull). Xabi San Sebastian: ahotsa (Festa si, lluita també). Orkatz Abesbatza: ahotsa (Martxa baten notak). Ion Garmendia "Hogei Hatz": alboka (Caça de bruixes). Ines Osinaga "Gose": ahotsa (Esaïok). Iñaki Ortiz de Villalba "Betagarri": ahotsa (Martxa baten lehen notak). Maider Redondo & Oiane Arratibel "Beste bat": ahotsa (Mª Merce). Carles Belda "Pomada": akordeoi diatonikoa, ahotsa (Nere ametsa, Perque vull). Xavi Sarria "Obrint Pas": ahotsa (Caça de bruixes). Jorge Nolla: gitarra espainola (Perque Vull). Ruben Caballero: gitarra eritmikoa (Perque Vull).

1.- Trikizio taldeak, nahiz eta plaza-taldea izan, "EusCat" proiektuarekin musikariaren nortasuna aldarrikatu nahi du.

Hasieratik plaza taldea izan gara. Baina urteak pasa ahala, hasierako "berbenero" arrastoa kentzen joan zaigu, bai gure aldetik eta bai publikoaren aldetik. Oso harro gaude mundu horren parte izateaz, ez baita erraza irratietan eta tabernetan hainbeste entzuten diren kantuak behar den bezala bertsionatzea. Jendeak abesti famatu horien guztien erreiritzi bat du, eta eszenatokian ez baduzu zehaztasunez jotzen, zureak egin du. Gure kasuan, arlo horretan asko saiatu gara, betiko kantu ezagunei geure estilo propioa ematen diegu. "EusCat" proiektuan, adibidez, festa kutsuko eritmoak jorratu ditugu, hori baita Trikizio taldearen izaera. Triki-festa, musika interpretatuz maila altu batekin. Modu horretan aldarrikatzen dugu Trikizio taldearen nortasuna.

2.- "EusCat" ez da bertsio eta interpretazio hutsean geratzen. Abestien moldaketa eta prestaketa sendoa nabari da.

Bertsio disko bat egiterakoan bi aukera dituzu: bat, abestiak hartu eta bere horretan jo, jatorrizko bertsioa bere osotasunean errespetatuz. Bigarren aukera, berriz, guk egin duguna da: jatorrizko abestiak estrukturalki eta harmonikoki bere horretan gorde, baina ahalik eta moldaketa aberatsenak erantsiz. Horri, berez jatorrian harmonia besterik ez zuten zatietan, melodia berriak erantsiz, emaitza oso polita ateratzen da. Hori zen gure helburua, eta uste dut lortu dugula. Matthieu Haramboure gure ekoizleak lan txukuna egin du. Ondo jakin du ideia horiek bide zuzenetik eramaten.

3.- Sena eta sona handiko kantuak aukeratu dituzue "EusCat" errepertorioan. Ez dizue horrek bertigo kultural eta musikalik eragin?

Arrisku handia dago hanka sartzeko horrelako abestiak aukeratzean, baina kontrakoa ere gerta liteke. "EusCat" diskoko abesti askok giza-eragin handia izan zuten (eta batzuek badute oraindik). Abesti horiek oraindik ere eragin handiagoa izatea da gure nahia, baina oraingoan beren mugetatik kanpo. Esaterako, Inadaptats-en "Festa si, lluita també" abestiaren hitzek, hemen, Euskal Herrian, erabateko onarpena izango luke hainbat gizarte esparrutan, eta berdin Mikel Laboaren "Martxa baterako lehen notak" abestiak Katalunyan gizartean. "EusCat" diskoko beste abesti guztiekin beste horrenbeste gertatzen da. Horregatik, hitzak itzuli eta moldatzean, oso zorrotzak eta zehatzak izan gara, bai eta musika moldatzean ere. Abestiak bi herrialdetako gustuak aztertuz aukeratu ditugu eta, ondoren, estiloen moldaketak landu ditugu.

rixu aizpuru (2008ko ekainaren 27an)

